

0.- SARRERA

Xeiak bukatu dira - aurten, gainera, dagoeneko irailan - eta haiekin batera bat-batean amaitzen dira uda eta oporrak, eskolara itzulia iristen da, etxeak negurako prestatu behar dira... Azken finean, nagikeria sartzen digu horretaz pentsatze hutsak, baina urtero garai honetan hau tokatzen zaigu.

Antzinan, egoera guztiz bestelakoa izan arren, artzainak eta neska gazteak prestateketan ibiliko ziren ere, negu luzea Bardeetako bakardadean edo Mauleko espartinen lantegietako lanaldi bukaezinetan pasatzeko. Haiei ere pentsatze hutsak nagikeria sartuko zien gorputzean.

Beraz udazkena hemen dugu, nahi eta nahiez, orduan ikus dezagun ea Bidankozeri buruzko gauza batzuk irakurtzen tarte on bat pasatzen dugun behintzat.

Gustura pasatuko duzelakoan, besterik gabe, hasiko gara.

1.- HISTORIA APURRAK - NAFARROAKO KONKISTA, 1512AN


Duela 500 urte, Bidankoze, Erronkaribar eta Nafarroa osoa bezala, Gaztelak uztailearen bukaeran hasitako inbasioaren aurrean erreakzionatzen saiatzen ari zen.

Antzinatik, erronkariarrak pertsona ausartak eta borrokalariak ziren -izan ere, iturri batzuen arabera Nafarroako armadako eliteko soldaduak baziren-, eta ez zeuden inola ere men egiteko prest.

Oroimenean zeuden erronkariarren jite borrokalariaren legenda handitu zuten musulmanen aurkako borrokak, Orreagako gudua, edo berrikiago, 1490an, Bardeetako aprobetxamenduagatik izaniko gatazkak, eta beste hainbeste.

Horregatik, 1512ko uztaile hartan, erronkariarren talde bat (batzuen arabera, 200 lagun, eta beste batzuen arabera,

berriz, 800) izan zen Sakanatik zetorren Gaztelaren armadari Oskiaiko haitzartean aurre egin zion bakarra.



Aukera handiegirik ez zutela ikusirik, berehala atzera egin behar izan zuten. Irailean, Juan III erregeren eskariz, men egiten zuten. Hala ere, kontraerasoa prestatzeari ekin zioten, hilabete eta erdi geroago gauzatu zutena.

1512ko udazkenean Juan III Pirinioetatik sartu, Burgiko gaztelua berreskuratu, eta bere leialak biltzen hasi zen.

1512ko udazkeneko kontraeraso hartan erronkariarrek gertaera gogoangarri batzuk burutu zituzten, esaterako, Erribera aldera zihozten 100 bat erronkariarrek 250 edo 600 bat aragoiarri (iturriak iturri) ihes eginarazi zietenekoa.

Alabaina, saiakera guztiak alferrik izan ziren, eta udazkena aurrera joan ahala, gaztelarrek egoera menderatu zuten. Erronkariar askok heriotza-zigorra jaso zuten beren erregeari leial izateagatik.

2.- BIDANKOZEKO HIZTEGIA - ABEREA

Bidankoze, abere-hazkuntzari lotutako herria bezala, gaiari dagokion hiztegi handia du. Jarraian, Bidankozen bildutako artila-aziendari (ardi-azienda) buruzko hitzak, jatorrizko iturrietan emandako definizioarekin:

ARDIAK ADINA/EZAUGARRIEN ARABERA

Hatajo: artalde;

Caloyo: kume jaioberria;

Cordero: 40 egun eta 6 hilabete arteko ardia;

Borrega: 6 hilabete eta urtebete arteko ardia;

Primala: urtebeteko ardia;

Cuatrimudada: 3 urteko ardia;

Cerrada: 3 eta 4 urte arteko ardia;

Dobloa: bi ama jartzen zaizkion axuriari ematen zaion izena; hau belar gutxi

dagoenean eta ardiak esne gutxi dutenean egiten da;

Bronchudo: adar txikiko ahariko;

Cornudo: ahariko adarduna;

Mocho: ahariko adargabea;

Mardano: ahari aita;

Bardina: larruan orbana beltzak dituen ardia;

ZINTZARRIAK

Esquilera: zintzarria daraman ardia;

Cusculo: zintzarri txikia;

Chacla: forma bereziko zintzarria;

Piqueta de cría: zintzarririk txikienak, bildotsendako;

Ralera: ardi-aziendako zintzarria, arrunki aho karratukoa. Izen hori du garai batean erreale bat balio zuelako;

Truquillo: ardiek daramaten zintzarria;

AKATS EDO GAIXOTASUNAK

Chiquilón: barrabilik gabeko aharia;

Fura: hezigabeko ardia;

Modorra: ardiaren burua erasotzen duen gaixotasuna;

Rebús: ezertarako balio ez duen bildotsa;

Vacivo (artalde): gaizki erditu duten ardiak, matxorrak eta borregak;

BESTE BATZUK

Amanecer: ahariak ardiari aharitu;

Chiqueta, chiqueta: ardiari deitzeko hotsa;

Cirria: ardi-gorotza;

Escodar: emei buztana moztu;

Pirrita, pirrita: ardiari deitzeko hotsa;

Tupe: ardiaren mototsa;

Ziur aski hitz asko falta dira, baina hauek lagin ona osatzen dute.

3.- HEMEROTEKA - LABEA ETA AROZTEGIAREN ENKANTETIK 150 URTE

Orain dela 150 urte, 1862an, ekonomiak ere garai txar bat igaro omen zuen. Horren gaizki, horren suntsituta zegoen estatua, non, dirua irabazteko, herriko eta elizako ondasunak desamortizatzea erabaki zen.

Egiaz, prozesu hau, Madozen desamortizazioa deritzona (Madoz garai hartako ogasun ministroa baitzen), 1855. urtean hasi zen, baina desjabetutako ondasunen salmenta mende bukaera arte luzatu zen.

Kontua da 1862. urteko udazkenean, *Estatuko Jabetzen Salmenta Aldizkari Ofizialak* Bidankozeko labea eta aroztegia enkantean jarri zuela. Bai ondasun hauek, bai errota, bidangoztarren esku mantendu ziren eta haien erabilpena herritar guztientzako erabilgarri egotea sustatu zen.

Errota ez zen 1862. urteko enkantean agertzen, aurretik saldu zelako, 1859.

urtean. Kasu honetan ez zen estatuaren enkante bat izan, baizik eta udalaren salmenta berezi bat, antza denez, bidangoztarrek errota edukitzeko amarruren bat eginez. Udalak errota lurreratzeko zorian zegoela zioen, eta konpontzeko baliabide ekonomikorik ez zutela. Gainera, errotaren zor bati aurre egin behar zioten. Balioa eman eta enkantean ipini zen, Diego Pérez (*Diego*) eroslea izanda. Honek "irin-errota, *Marikalda* mendia edo pakoa, *Seseta*, *Bilasko*, *Ygariarena* eta *Ansegurnea* pakoa edo izedia"-en erosketaren jarraian, notario aurrean egin zen beste dokumentu batean azaldu zuen bezala, Bidankozeko zenbait pertsonen laguntza izan zuen (izen guztiak aipatu zituen. Seguruenik Bidankozeko familia-buru guztiak ziren). Horregatik, haiek ere errota erabiltzeko eskubidea zutela adierazi zuen.

Antzeko zerbait gertatu zen aroztegiarekin, 1862. urteko enkantean

Mariano Mendigatzak (*Mendigatxa*) erosia. 1877. urtean eskritura publikoan Bidankozeko auzokideei aroztegia ematen ziela adierazi zuen, betiere lekua aroztegia bezala mantentzen bazen.

Azkenik, labeak 1877. urtean Braulio Urzainkik (*Txestas*) eskuratu zituen. Hauek, lehen aipatutako ondasunen antzera, herritar guztiek erabil zitzaizketen.

Beraz, esan genezake, Madozen desamortizazioa *Errota Elkarte* eta *Erantsitako Lursailen* hasiera izan zela, zeinaren hiru jabetza nagusiak artikulu honetan aipatzen dira. Baina aipatutako elkarte formalki 1906. urtean eratu zen, azaldutako gertakariak eta ia 50 urte geroago.

Hurrengo batean, garai horretan gertaturikoari eta *Errota Elkarte*ari gertatukoari buruz luze hitz egingo dugu.

4.- TOPONIMIA (TOKIEN IZENAK) - LANDETA

Oraingo honetan arduratzen gaituen toponimioa erabilera arrunta duen horietako bat da, herriko etxe ugari inguru horretan baratzaren bat baitaukatete. *Landeta* izenez ari gara.

Bintze ugaltzak ekialdetik eta errotako ubidea mendebaldetik mugatutako lur sailari deitzen zaio, eremu guztia ia bere osotara baratzetarako erabiltzen da eta herriko oso hurbil dago.

Bere etimologiari dagokionez, kasu honetan argi dago: "landa" (euskaraz, zelaia edota landatzeko ona den lur-saila) + "eta" (zenbaitetan atziki lokatiboa, bestetan kantitatezkoa), hortaz, *Landetak* zelaia edo zelai askoren esanahia du. Nafar izendegiak dio Erronkaribarren *landa* herriko gertu dauden zelai eta larreei deitzen zaiela. Beste toki batzuetan, landa toponimioa gaztelarazko "vega", hau da, ur-bazterarekin erlazionatzen da, erreka

bateko uharanetan dauden lur aberats eta emankorak, alegia.



Agirietan, orain arte erkatu ahal izan dudaren arabera, *Landeta*ren erreferentzi zaharrena 1713ko notario-agiri batean azaltzen da.

Bitxia bada ere, agirietan aurkitutako beste aipuengatik, horietako batzuk are zaharragoak (1643), badirudi eremu honi (errotako ubidea eta *Bintze* ibaiaren artean

kokatutakoari) *Kartxerea* edo *Kartxiria* izenekin ere deitu izan zaio. Mariano Mendigatzak berak bere gutunetako batean izendapen hori aipatzen du, ureztatzeko baratza bati erreferentzia egiten diola adieraziz, baratze hitzaren kontra, azken hau ureztatzen ez ziren eremuetarako besterik ez zen erabiliko.

Ikus daitekeen moduan, bai *Landeta* bai *Kartxiria* gaur egun aldatu gabe heldu den lur sail baten errealitatea definitzen dute. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, beren jatorrizko izenak egungo errealitatearekin bat egiten ez duten beste izendapen batzuekin, hurrengo batean ikus ahalko dugunez.

Errota eta bere ubidea Bidankozeko aspaldiko bi elementuak dira, ziurrenik agirietan elizen inguruko aipuez gain aurki dezakegun zaharrenetarikoa. Horregatik, baliteke baratzak izendatzeko *Landeta* hitzaren erabilera, errotaren ubidearekin batera, hainbat mendeko antzinatasuna izango lituzkeela.

5.- OIKONIMIA (ETXEN IZENAK) - LANDARNA

Etxeen bigarren itzulia *Iriburua* auzora itzuliz hasiko dugu eta antzinako zerrendetan bigarren etxea izaten ohi zenarekin: *Landarna* etxea.

-RNA (edo -ENA beste adibide batzuetan) Uskaraz jabetza adierazten du. Tradizioz, etxeko jabearen izenari, abizenari edo goitizenari eransten zitzaion bi atziki huetako bat, etxearen izena horrela osatuz. Izen hori bokalean amaitzen bazen, oraingo kasuan bezela, "*Landa*", -RNA gehitzen zitzaion, gure kasuan *Landarna* osatzen zelarik. Kontsonantean bukatuz gero, adibidez "*Montzon*", -ENA gehitzen zitzaion, oraingo kasu honetan *Montxonena* geldituz (gaur egun *Montxonena* ahoskatutik).

Horrela, -RNA edo -ENA bukaera duen Bidankozeko edozein etxeren izena hautaturik, kasu batzuetan jakin dezakegu zein izen edo abizenetik datorren (*Landa*, *Montzon*, *Hualde*...) eta, beste batzuetan, jabetza atzikiaren aurrean doan izenak zer aipatu nahi duen ustetan geratu beharko gara.

Izen honen jatorria, halabeharrez, argi dirudi, Landa abizenari loturik dagoela. Eta, horixe ba, 1646ko biztanle erroldan Bidankozeko bigarren etxean Juan Landa bizi zen eta pertsona bera (edo bere izen



Daciano Ezquer-reraino, senitarte oinordekotza izan zen. Kuriotsitatez, Valentina Landarekin, kasualitatez, ezkondu zen Daciano Ezquer, nahiz eta honen abizenak zer ikusirik ez izan, hasiera batean, etxeari izen ematen ziotenekin.

Etxeko kanpoko itxurak estatzen digunagatik, porlanez guztiz estalirik lau aldeetatik bi, informazio gutxi jakin daiteke, baina ideia bat iradoki dezakegu. Etxeko jatorrizko atea *Landarna*

berdina duen beste edonor) jarraitzen du jabe izaten 1677ko biztanle erroldan, beraz, argi dirudi, garai horretatik gutxienez, etxe hau *Landarna* izendatzen dela.

Egindako hurrengo biztanle erroldan, 1726.ean, Ignacio Yrigaray-ren bat dugu etxeko jabe, hala ere ezin izan dut jakin lehen aipatu

Landen senitartekoa zen. Dena den, aipatu Ignacio Yrigaray-tik

eta *Diego* etxeren artean dagoen *rekartean* kokaturikoa izanen zen ziurrenik, alde batetik hegoaldera begira zegoelako (energia aurrezki kontzeptua existitzen ez zen garai batean), hegoaldeko sarrera horretako aldeetako harria landurik dagoelako eta bestetik orokorrean etxe bat berako sarrera nagusirik ez zuelako kale Nagusira irteerarik, ziurrenik garaiotan abereen ohiko pasalekua zelako, guzti horrek dakarrenarekin.

Beste aldetik, *Diego* etxetik hurbilen dagoen aldean kale Nagusian kokaturiko iskinak gauza gehiago argitzen dizkigu. Hala nola, etxeak lehenago gaur egun baino solairu bat gutxiago eduki zuela, edo noizbaiten etxean sute edo erorpen izan zela etxea berreraikitza behartuz. Benetan, kale Nagusitik ikus daitekeenez, etxeko aurrealdeko harriak ez dira iskinako harriekin mihizatzen, berreraiketza bat baieztatu dezakeelarik, etxean dauden lehioen hamaika egurrezko zur-markoek baieztatu dezaketenez bezela, ohizkoak diren

harrizko markoekin alderaturik.

Azkenekoz aipatuko dugu, etxeko hegoaldeko aurrealdeko harrien artean ezkutaturik, goraiotan horma-hobia itxurako lehio

eder bat izanen zena dago (lerro hauen azpian), baina, noizbaiten, norbaitek nahiago izan zuen estaltzea.



6.- BIDANKOZERI BURUZKO BITXIKERIAK - LLEGA

Xeiak bukatu berri dira eta Bidankozeko xeietako ekitaldi ezagunenetako bat *llega* izenekoa da. Baina, nondik dator kio izena? Egia esan, ez dakit, baina udal kontu-liburuetan agertzen den bezela, han 1798an (eta ziur aski data horren aurretik ere bai) horrelako kargu bat agertzen da: "*Más*

*ocho R^o [Reales] treynta y dos c^o?? Importe del ref^o [refresco] tomado los dos Cavildos Ecc^o [Eclesiástico] y Secular a resulta de haver echo la *llega* o demanda de trigo p^a [para] la lumina^a [luminaria] del S^omo [Santísimo]*".

Beraz, garai hartan agintarientzako gosariak zeudela ikusteaz gain, eta udalak ordainduta, ondoriozta dezakegu *llega* eskaera edo diru-bilketa besterik ez dela, xeietako kasuan, diruaz gain, afari baterako arrautzak, txistorra eta urdaizpiko eskatuz.

7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (IV)

1903ko irailaren 28ko gutunan Mariano Mendigatxak (Mendigatxa) Bidankozen izaten ziren laboreak azaltzen ditu: garia, oloa, garagara, xeuria eta zalkea. Egia esateko, horietako laurdenak existitzen zirela ere ez nekien, eta ez dakit nagusiek xeuiri asko ereiten zen gogoan izango duten.



Beste alde batetik, eta eguraldiari dagokionez, irailaren 14an ia herriraino elurra egin zuela aipatzen du. Geroztik hona badirudi klima zerbaitek aldatu dela...

Jarraian bere bizitza pertsonalari buruzko zerbaitek gehiago: Mendigatxak dioenez, zenbait egun lehenago *bizitzan eduki dudak lagunik kuttunena hil zen, osasuntsu egon arren, hiru egun ohean egon zen eta laugarrenean hil egin zen*. Artzapezpiku-artxiboan kontsulta eginez, ez duzu Marianoren lagunaren izenik aurkitzen, abuztuaren 12tik urte amaiera arte ez baitago hildakoen oharrik, eta data horretako hildakoa ez du Mariano Mendigatxak egiten duen deskribapenarekin bat egiten.

Gutun honekin amaitzeko, Marianok gaur egun ospatzen ez diren beste jai batzuk aipatzen ditu. Aipaturiko festa irailaren 28 eta 29an kobratzen den diru-

sariari esker egiten dela azaltzen du. Egun horietan elizan hildakoentzako izugarritzako hainbat saio ospatzen dira eta ondorengo bi egunetan, irailaren 30 eta urriaren leian, *bizirik gaudenok gastu handia egiten dugu eta jende ugari hurbiltzen da festa honetara*.

Hurrengo gutunari dagokionez, orokorrean Bidankozeko bizitzaren eta Marianori buruzko oso mami gutxi dago.

Marianok berriro ere hezkuntzaren aipamena egiten du, antza kezka sorrarazten zion gaia izango zen. Alde batetik, badirudi Azkuek bitartekari lanak egin zituela organo-jotzaileak Mendigatxaren bilobari solfeoa berriz erakutsi ziezaiola (gogora dezagun Bidankozarteko 1. zenbakian Eleuterio edo Norberto Mainz Mendigatxa (*Mendigatxa*) izan zitekeela adierazten zela).

Hezkuntza kontuekin jarraituz, maisu berria etorri dela aipatzen du eta antza, honek (Timoteo Mate Palacios-i buruz ari da) irakasteko ahalegin gehiago omen dauka, nahiz eta bere erreparoa azaltzen duen... Eta, zuzen zebilen, Bidankozeko maisu berriak ez baitu ikasturte bat baino gehiago iraungo.

Geroago Azkueri erantzuten dio 1904ko udan zehar Bidankozen hilabete igarotzeko zuen asmoa azalduz, egun osoa Marianorekin eta hiruzpalau lagunekin euskaraz hitz egiteko.

Mariano, gizon zuhurra izanik, Gortzaraino edota Erronkariraino errepidez hel zitekeela ohartarazten dio, baina bera leku horretara mandoa eta mandazaina bidaltzen arduratuko zela. Honez gain, *Mendigatxa* etxean ostatu

hartzea erabakiz gero, alde zuretik abisatzeko eskatzen dio, etxearen gobernua ongi prestatzeko.

Uskara entzuteari dagokionez, bere etxean, *Mendigatxa* etxean, ostatu hartuz gero, bere alaba Ramona Ines Mendigatxa Perez (*Mendigatxa*) eta berak elkarrekin hitz egingo dutela adierazten dio. Honez gain, Azkuek eskatzen dion adineko jendeari esango diola, nahiz eta haren ustez, bere alabarengandik eta harengandik ateratzen ez duena, besteengandik nekez aterako duela. Berorrek askotan zenbait hitz nola esaten ziren gogoratzeke pentsamenduan atzera egiteko esfortzua egin behar izaten duela gogorarazten dio eta horregatik, gutun bakoitza idaztea kostatu egiten zaiola.



Bukatzeko, eta egunerokotasunera itzuliz, urriaren 29an, gizonetakoak negurako egurra eta zuziak etxeetan sartzen ari direla adierazten du eta ondoren guztiok (bera barne) negu osorako egurraren inguruko lanekin hasiko direla.

Urriko eskutitz hau, iraillekoarekin batera, hemen amaitzen da, 1903ko Bidankozeko hainbat zertzelada emanez.

8.- BUKAERA

Bukatzeko, gogoratzea aurten prentsako artikuluei buruzko erakusketik egon ez den arren, lana aurrera jarraitu dela eta abuztuaren 25ean aurkeztu egin zen 1936-1960 urteetako prentsa bilduma, "*Susurros del Binies*" izenekoa. Egun berean ere, Bidankozen 1560-1561ean egon zen Graziana Belzaren aurkako sorginkeria prozesuari buruzko hitzaldia eman nuen.

LAGUNTZAILEA:

AYUNTAMIENTO
DE LA VILLA DE
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO
AIZA BULGUA

harremanetan jartzen lotu dezakezue, 5 €-ren truke.

Eta oraingoz hori da dena eta tarte ona pasatu izatea. Hurrengo zenbakian, abendurako prest egongo dena, gehiago eta hobeki. Ordura arte, zaindu. Agur bero bat.